



2023/2024 denboraldia

15. ZIRKULARRA

GIZONEZKOEN GORENGO MAILAKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Gorengoen Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1 TALDEA

- 1 VASCONIA C.D.
- 2 TOURING KE "B"
- 3 ROTETA C.D.
- 4 OSTADAR S.K.T.
- 5 SANPEDROTARRA F.E
- 6 ALLERRU K.E.
- 7 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE
- 8 HONDARRIBIA F.E
- 9 SANTO TOMAS LIZEOA
- 10 USURBIL F.T.
- 11 ORIOKO F.T.
- 12 GETARIAKO KETA F.T. BABYAUTO
- 13 AXULAR K.K.E
- 14 URNIETA K.E.
- 15 MARIÑO C.D.
- 16 LENGOKOAK K.E.

GRUPO 2 TALDEA

- 1 ALOÑA MENDI K.E.
- 2 MONDRAGON C.F.
- 3 EUSKALDUNA S.D.
- 4 ILINTXA S.D.
- 5 ANAITASUNA C.D. "B"
- 6 URKI C.D.
- 7 DANENA K.E.
- 8 BILLABONA K.E.
- 9 IKASBERRI K.E.
- 10 ARETXABALETA K.E. UDA "B"
- 11 BERGARA K.E. "B"
- 12 SEGURAKO K.E.
- 13 ANTZUOLA K.E.
- 14 ZESTOA K.B.
- 15 ZUMAIAKO F.T. "B"
- 16 SORALUZE C.F.



2. LEHIAKETA SISTEMA

Gorengo Mailako liga txapelketa **32 taldek** osatzen dute, 16 taldeko bi multzotan banatuta. Fase bakar batean jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (30 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

Ohorezko Erregional Mailara igoko dira goragoko kategoriako beste batekin mendekotasun- edo filialtasun-harremanik ez duten bi multzoetako lehen sailkatuak. Hurrengo sailkatuek, beharrezkoa izanez gero, kanporaketak jokatuko dituzte Ohorezko Erregional Mailan plaza hutsak egonez gero lehentasunezko ordena zehazteko, erregelamendu bidez zehaztuko diren modu eta baldintzetan.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek finala jokatuko dute zelai neutralean, mailako txapelduna izendatzeko.

Erregionalen 1. Mailara 6 talde jaitsiko dira, bi multzoetako azken 3 sailkatuak.

Kategoria galduko dute, halaber, Federazio honetako taldeen kasuan gertatzen diren goragoko mailetako jaitsieren ondorioz behar direnek, baldin eta egoera horrek aipatutako kategorian klub gehiegi egotea badakar, kontuan hartuta 2024/25 denboraldirako Prioreak 32 talde izan beharko dituela.

3. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienaz zazpi ordezko egongo dira aulkian.

4. ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

Partidetako arbitroen karteldegia orekatzeko asmoz, txandaka-txandaka, Ohorezko Erregional Mailako (gizonezkoena eta emakumezkoena) eta Gorengo taldeen (gizonezkoena) partida guztiak igandera eramango dira. Kategoria horiek, hain zuzen, marrazainak behar dituztenak dira.

Nahitaez igandera lekualdatuko diren partida horiek jokatzeke ordu tarte bat ezarri da, hain zuzen ere, distantzia 50 km-tik gorakoa denerako ezarrita dagoen berbera: 11:00etatik 17:30era.



Gorengo Mailari dagozkion 1 multzoko igandeak honako hauek dira:

- 05. jardunaldia: 2023-10-15
- 09. jardunaldia: 2023-11-12
- 13. jardunaldia: 2023-12-17
- 18. jardunaldia: 2024-02-04
- 22. jardunaldia: 2024-03-10
- 26. jardunaldia: 2024-04-21
- 30. jardunaldia: 2024-05-19

Gorengo Mailari dagozkion 2 multzoko igandeak honako hauek dira:

- 02. jardunaldia: 2023-09-24
- 06. Jardunaldia: 2023-10-22
- 10. Jardunaldia: 2023-11-19
- 15. Jardunaldia: 2024-01-14
- 19. Jardunaldia: 2024-02-18
- 23. Jardunaldia: 2024-03-17
- 27. Jardunaldia: 2024-04-28

Klub bakoitzak aurrez aipaturiko jardunaldi bat aldatzeko aukera izango du, jardunaldi horretan igandea ez den beste egun batean jokatzeko, beti ere, gutxienez jardunaldi hori jokatu baina 15 egun lehenago abisatzen bada.

5.DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

6.XEDAPEN OROKORRA

Bere garaian Gipuzkoako Futbol Federazioaren Batzar Orokorrean honako gai hauei buruz ezarritako akordioari eusten zaio:

- 1) Gorengo Mailan "koltxoi" kategoriaren irizpideari eustea.
- 2) Gorengo Mailan sortzen diren plaza hutsak txandaka betetzea, hurrenkera honetan:
 - a) Erregionalen 1. Mailatik igotzeko eskubidea lehenetsiz. Eskubide horri uko eginez gero, b) puntuarekin jarraituko da.



- b) Gorengo Mailatik jaitsitako ondoen sailkatu den taldea ez jaistea. Eskubide horri uko eginez gero, hurrengo puntuarekin jarraituko da.
- c) Eta horrela, hurrenez hurren.

Bi multzotan edo gehiagotan osatzen diren kategorietan, mailaz igotzeko edo mailari eusteko eskubideak sailkapen postu bera bete duten taldeen artean jokatuko dira. Hau da, lehenengoak, bigarrenak, hirugarrenak eta horrela, hurrenez hurren, beste multzoko sailkapen postu bera betetzen duten taldeekin jokatuko lituzke partidak.


7. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2023ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalatuta, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzeko, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2023ko irailaren 15a

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General